

DONOSTIA / 'Kristalezko begi bat', kritikari guztiak lanean jarri dituen liburua, gaur aztergai Literaktum-en

Egilea, Miren Agur Meabe, eta Uxue Alberdi -berau ere idazlea- elkarrizketan ariko dira

Literaktum jaialdia aurrera doa. Gaur Miren Agur Meabek bere liburu berria aukeztuko du, narrazioaren alorrekoa eta autobiografiatik hurbil dagoena: 'Kristalezko begi bat'. Aldamenean Uxue Alberdi idazle, bertsolari eta kazetaria izango du, eta elkarrizketa tankerako ekitaldia izango da.

Zer esana franko eman duen liburua da. Armiarma.com-eko 'Kritiken hemeroteca'-k zenbaki harrigarriak ditu: martxoaren 8tik maiatzaren 12ra bitartean hamahiru kritika idatzi dira liburu honetaz.

Liburua martxoaren 7an aurkeztu zen komunikabideen aurrean. «Aitorpen biografiko egiazkoa bezain iruzurtia egin dut», esan zuen Meabek.

Martxoaren 7an plazaratu zen liburua. Hurrengo egunean, Hasier Etxeberriak erabateko goraipamena egin zion 'Zuzeu' albistegi elektronikoan: «Nik dakidala, sekula ez da ikusi halakorik gurean. Ez ar eta ez eme, boligrafoa eskutan harturik, edo idazmakina edota ordenadorea, halako aitortza handirik eta egiazkorik egiten. Eta, batez ere, halako indar eta abildadearekin transmititzen. Hain eder, hain gordin».

Handik laster, Katixa Agirre idazleak kritikari lana egin zuen 'Gaur8'-rako. Hau ere txundituta ageri zen: «Izoztuta uzten zaituen lehenengo kapitulu labur batekin zabaltzen da Miren Agur Meaberen liburua: bere bizitza markatu duten galerak zerrendatuz, labur eta soil».

Martxoaren 23an, Ibon Egañaren txanda 'Deia'-n: «Nik neuk narrazioari tarte gehixeago eskaini ez izana bota dut faltan, eta inpresioa dut batzuetan azkarregi egiten dela kontatzetik kontatutakoaren gaineko hausnarketarako jauzia. Aitzitik, bereziki estimatzen diot liburuari, ausardiarekin batera, material gordin eta pertsonal batetik literatura egiteko prozesuaren erradiografia hain zorrotza eskaini izana».

Eta Javier Rojok DV honetan: «Irakurleri liburuaren izaeraz dudak sortuko zaizkiola iruditzen zait. Izan ere, liburuaren kontrazalean nobelatzat definitzen dute liburua, baina irakurleri berehala irudituko zaio hitzen jabea den ahots hori ez dagokiola fikziozko izakiren bati, idazleari berari baizik».

Apirilean, iritzi ezkorrago bat, Iban Zalduarena (bere blogean): «Ba, iritzi orokorraren kontra, ez zait sobera gustatu. (...) Badaude pasarte batzuk ondo, are oso ondo ematen dutenak: aitarekikoak egiten dituenean, adibidez, asko gustatu zait ('Zorrozteia, ahoberritzea' atala, adibidez). Hor di-da doa egilea, hezurra, eta oso eraginkorra da. Baina halakoak salbuespenak dira. Nire ustez lirikotasuna gailentzen da, txarrerako, liburuan, batzuetan arazeriaren mugetara iritsiz».

Zalduari hurrengo egunean bertan erantzun zion Beñat Sarasolak bere blogean. Ez zettorren bat: «Kontaketa gupidagabea iruditzen zait, hots, bere buruarekiko benetan gupidagabea, artifiziorako joerarik gabea».

Eta apirilak 14 Lander Garrok 'Berria'-n beste laudorio bat: «Liburuaren premisak bi dira: zintzotasuna eta estiloa. Idazleak badaki zer kontatu behar duen, ezin hobeto ezagutzen du gaia (Madame Bovary, c'est moi), eta ezagutzen du idazle ofizioa».

GAURKO EKITALDIA

Tokia: Donostiako Udal Liburutegiko ekitaldi aretoa (San Jeronimo kalea).

Ordua: 19:30ean.

Aurkezlea: Uxue Alberdi (idazle, bertsolari eta kazetaria).